



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainak 26

Vitoria-Gasteiz, 26 de junio de 2018

Lehendakaritza

5,3 MILIOI EURO INGURU EMAN DITU EUSKO JAURLARITZAK LARRIALDIETAKO ETA EKINTZA HUMANITARIOKO PROIEKTUETARAKO

- **Onetsitako 17 proiektuak krisi humanitarioak erasandako populazioei laguntzeko dira, herrialde hauetan: Palestina, Siria, Libano, Pakistan, Nigeria, Afrika Erdiko Errepublika, Kamerun, Mexiko, Nikaragua, Honduras, Costa Rica, El Salvador, Paraguai, Kolonia eta Ekuador**

Eusko Jaurlaritzak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bitartez (GLEA), onartu du diru-laguntzak ematea Euskadiko GGKEei ekintza humanitarioko proiektuak gara ditzaten munduko hainbat lekutan. Hain zuzen, GLEAk dagoeneko esleitu ditu laguntza horietarako aurreikusitako 5,3 milioi horietako gehienak. Apirilean egin zen laguntza horietako bi modalitateetara biltzeko deia:

- **Finantzaketa iraunkorreko linea**, irekita dago urte osoan edota funtsak agortu arte: 2,4 milioi euro. Lerro horretakoak dira larrialdietarako proiektuak, hondamendiek eragindako pertsonen lehen laguntza eskaintzekoak. Hor sartzen dira, halaber, ekintza humanitarioko proiektuak, hondamendien aurrean prestatu eta prebenitzeko, hondamendien ondorioak arintzeko eta birgaitzeko, bakea eraikitzeko, eta giza eskubideak eta Nazioarteko zuzenbide Humanarioa babesteko.
- **Ekintza humanitarioko esparru-estrategien linea**, lehiaketa bidez egiten da eta 2,9 milioi euroko funtsa du. Esparru-estrategien bitartez, alor humanitarioko erakunde espezializatuek laguntza eskaintzen dute batez ere ahaztutako krisialdietan. Iraupen eta aurrekontu luzeagoko ekintzak dira, komunikabideetan gutxiago agertzen diren krisiek eragindako herritarrei, eta beraz, emaile humanitarioengandik laguntza gutxiago jasotzen dutenei laguntzeko.

Lehen modalitateari dagokionez (**finantzaketa-lerro iraunkorreko larrialdietako eta ekintza humanitarioko proiektuak**), Eusko Jaurlaritzaren laguntzak 13 proiektutarako izango dira. Proiektu horiek ondoko euskal GGKEek aurkeztutakoak dira:

- Bakearen aldeko Lankidetzarako Asanblada elkartearen proiektua, okupazioaren pean dagoen Palestinako populazioaren eskubideak eta duintasuna babesteko, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioarekin bat etorriz, Zisjordanian (Palestinako Lurralde Okupatuak).

- Oxfam Intermon Fundazioaren proiektua, Prinzapolka udalerriko populazio indigenaren erresilientzia handitzeko, Karibeko Ipar Kostako Eskualde Autonomoan (Nikaragua).
- UNICEF Fundazioaren proiektua, lagunduta ez dauden edo beren familietatik bananduta dauden haurrak babestu eta haiei familia-ingurune bat emateko, Nigeriako ipar-ekialdean.
- Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioaren proiektua, herriak berdintasunez antolatzeko, hondamendi naturalen aurrean arriskuei aurre egin eta haiek gutxitzeko (Pakistan).
- UNRWAKo Espainiako Komitea elkartearen proiektua, Gazako zerrendan erabateko pobrezian bizi diren errefuxiatuen janari segurtasunik eza murrizteko (Palestinako Lurralde Okupatuak).
- Ekintzaz Lagundu Fundazioaren proiektua, irailaren 19ko lurrikarak 15 komunitatetan erasandako populazioa berreskuratzeko, Mixteca Poblana eskualdean (Mexiko).
- UNICEF Fundazioaren proiektua, desnutrizioari aurka egiteko Afrika Erdiko Errepublikako eremu ahaztuetan.
- Oxfam Intermon Fundazioaren proiektua, larrialdietako egoeran emakumeen erresilientzia- eta lidergotza-gaitasunak indartzeko, Bañados de Asunción-en (Paraguai).
- Mundubat Fundazioaren proiektua, Gazako zerrendako emakume eta adingabe gazatarrei laguntza psikosoziala emateko (Palestinako Lurralde Okupatuak).
- UNRWAKo Espainiako Komitea elkartearen proiektua, Sirian Palestinako populazio errefuxiatuen biziraupena segurtatzeko, eskudirutan lagunduz.
- UNRWAKo Espainiako Komitea elkartearen proiektua, Libanon Siriako errefuxiatu palestinarren erresilientzia babesten laguntzeko, oinarrizko premietarako eskudirutan lagunduz.
- Alboan Fundazioaren proiektua, behartutako migrazio-egoeran dauden pertsonen laguntza humanitario integrala emateko, Kolonbian eta Ekuadorren.
- Alboan Fundazioaren proiektua, 15 - 25 urte arteko gazteei prestakuntza teknikoa ematea eta gizarteratu eta lan-munduan txertatzen laguntzea helburu duen estrategia bat abian jartzeko, errefuxiatuen Gado Badzeré esparruan (Kamerun).

Gainera, bigarren laguntza-modalitateari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak lagundu egingo du **Ekintza Humanitarioko** lau **Esparru Estrategia** abian jartzen:

- UNRWArene esparru-estrategia (Nazio Batuen Agentzia Palestinako Errefuxiatuentzat). Proiektuaren helburua da Gazako zerrendako emakumeen eskubideak bermatzea –osasunerako, gizartean parte hartzeko eta baliabide ekonomikoetara sarbidea izateko– (Palestinako Lurralde Okupatuak).
- Bakearen aldeko Lankidetzarako Asanblada Fundazioaren esparru-estrategiak helburutzat du arrisku humanitarioen eragina eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen urraketekin lotutako krisiak prebenitzea eta arintzea, Palestinako zenbait lekutan, eta enfasi berezia jarriz genero-indarkeriaren aurkako borrokan eta haurren babesean (Palestinako Lurralde Okupatuak).
- Alboan Fundazioaren esparru-estrategia, lekualdatzeko arriskuan dauden eta lekualdatuta dauden pertsonen oinarrizko premiak betetzeko, haien segurtasun fisikoa eta emozionala handitzeko eta haien funtsezko eskubideak bermatzeko, hain zuzen ere nazioarteko babesaren premian dauden horienak Erdialdeko Amerikako Ipar Triangeluan (Costa Rica, El Salvador, Honduras, Mexiko), arreta berezia emanez genero-indarkeria egoerak bizi izan dituzten pertsonei.
- SEADen Lagunen Elkartearen esparru-estrategia, Mheirizera itzulitako populazio sahararrak edateko ura eskueran duela ziurtatzeko (Lurralde Liberatuak), ponpaketa-estazioan biltegitratzeko gaitasuna hobetuz, eta ura banatzeko zisterna-kamioien eta baldintza egokietan ura biltegitratzeko deposituen hornikuntza emanez.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

300.000 EURO UDALERRIENTZAKO LAGUNTZETARAKO, PAISAIA BABESTEKO ETA LEHENERATZEKO PLANAK PRESTATZEKO

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren aginduari; horren bidez, Euskadiko udal eta kontzejuei paisaien ekintza-planak prestatzeko diru-laguntzak emateko deialdia egin da. Aurrekontua, guztira, 300.000 eurokoa da.

Paisaiaren ekintza-planak lurralde-eremu zehatz batean interesekoak diren natura-, hiri- edo industria-arloak leheneratzeko eta/edo horien balioa nabarmentzeko esku hartzeko tresnak dira. Gutxienez, paisaiaren eta paisaia-dinamiken diagnostikoa eta analisia eman beharko dituzte eta, horretarako, ekintzak eta jardun-programak zehaztu.

Eusko Jaurlaritza Europako Kontseiluak 2000ko urriaren 20an onetsitako Paisaiaren Europako Hitzarmenari atxiki zitzaion eta, horrela, bertan ezarritako edukiak hartu zituen bere gain, paisaia lurraldearen antolamendu-politiketan sartu zuen eta gaiaren inguruko sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak jarri zituen martxan.

Onetsitako aginduaren arabera, ekitaldi honetan paisaien ekintza-planak idazteko ordainsarien % 90 diruz lagunduko da, zergak aparte, gehienez 30.000 euroekin plan bakoitza, harik eta dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte.

Eskabideak aurkezteko azken eguna 2018ko irailaren 10a izango da, egun hori barne, eta eskabideak baliabide elektronikoen bidez aurkeztuko dira, euskadi.eus-en:

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2018/subvenciones-planes-accion-del-paisaje-2018/y22-izapide/es.

Ogasun eta Ekonomia

ANE ETXENASIA ARAMBURUZABALA , EUSKO JAURLARITZAREN OGASUN ETA EKONOMIA SAILEKO ZERGA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARI BERRIA

Gobernu Kontseiluak gaur eman dio onespena Ane Etxenasia Aramburuzabala Zerga Administrazioako Zuzendari izendatzeari, Ogasun eta Ekonomiako Sailburu Pedro Azpiauren proposamenez eta kargua joan den apirilaren 17an bere borondatez utzi zuen Maitane Romero ordezteko.

Ane Etxenasiak Zerga Koordinaziorako Organoko idazkari eginkizunak beteko ditu, euskarri tekniko eta administratiboa eskainiko dio Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoari eta bere ardurapean hartuko ditu zergen harmonizazio, koordinazio eta lankidetzari buruzko azterlanak, analisiak eta txostenak. Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean, eta hasieratik zuzendu du bere karrera zerga gaietara. Zazpi urteko esperientzia profesionala bildu du, bai enpresa multinazional baten zerga-sailean eta bai ospe handiko abokatu-bulego batean.

Hezkuntza

“HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOA. AKORDIORAKO OINARRIAK” DOKUMENTUA

Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak, Gobernu Kontseiluan, “Hezkuntzaren aldeko akordioa. Akordiorako Oinarriak” dokumentua aurkeztu du, Hezkuntza Sailak ikasturte-hasieratik sustatu duena.

Eusko Jaurlaritzak berretsi egin du, legegintzaldi honetan, Hezkuntzaren aldeko Akordioak nolako garrantzia duen. Eskola-elkarte osoaren artean akordioa lantzeko beharra nabarmendu du, baterako oinarria zehazteko; euskal hezkuntza-sistemaren oinarriak ezartzeko aukera emango duen hausnarketa partekatua, denboran iraungo duten printzipio egonkorak ezartzekoa, eta anbizio gehiagoko helburuak lortu ahal izateko erreferente bilakatuko dena, besteak beste, etorkizuneko Hezkuntzako Euskal Legea lortzeko.

Pasa den irailetik, “Akordiorako Oinarriak” dokumentua prestatzeko lanean parte hartzeko zenbait fase egon dira:

- Pasa den irailaren 25ean, Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak irakaskuntzarekin zerikusia duten hezkuntzako eta gizarteko hogeita hamar bat eragile baino gehiago batu zituen: familia-elkarteetako, irakasleen, zuzendaritzen, hezkuntza-patronalen eta sindikatueta ordezkariek, eta haiei “Akordiorako Oinarriak” dokumentua prestatzeko prozesua hasi zela jakinarazi zien. Bilera hartan, lantaldeak sortu zirela jakinarazi zen (Bizikidetzeta, Modernizazioa, Ebaluazioak, Hizkuntzak eta Ikastetxeen Autonomia), eta ekimenaren kronogramaren berri eman zen; horren amaiera Eusko Legebiltzarraren behin betiko dokumentua izan zen, oraingo saioen aldia amaitu aurretik.
- Otsailaren 25ean, eta hezkuntzari lotutako zenbait gaitako adituek eraturako taldeek hainbat lan egin ondoren, Hezkuntza Sailak berriz ere batu zituen hezkuntzarekin zerikusia duten eragile guztien ordezkariek, eta akordiorako oinarriak jaso dituen lehen zirriborroa eman zien. Une horretan, epea ireki zen hezkuntza- eta gizarte-eragile guztiek, bai eta herritarrek ere, oro har, dokumentua aberasteko eta hobetzeko egokitzat jotzen dituzten ekarpenak aurkezteko.
- Martxoaren 7an, eta jasotako ekarpenak aztertu eta balioetsi ondoren, Hezkuntza sailburuak Eskola Kontseiluari “Akordiorako Oinarriak” dokumentua eman zion, hausnartzeko.
- Maiatzaren erdialdean, Euskadiko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Sailari “Akordiorako Oinarriak” dokumentuaren inguruan prestatutako eta kideek onetsitako irizpena bidali zuen.
- Azkenik, eta irizpenaren edukia aztertu ondoren, Hezkuntza Sailak erabaki zuen Euskadiko Eskola Kontseiluak bidalitako proposamen ia guztiak sartzea. Behin betiko dokumentua Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen.

Hezkuntza Sailak, aste honetan, “Akordiorako Oinariak” dokumentuaren behin betiko bertsioa bidaliko du, eta, horrela, Legebiltzarraren eta hezkuntza- eta gizarte-eragileen aurrean ekimena aurkezteko unean hartu zuen konpromisoa beteko du.

Horrela, bada, Legebiltzarraren egoitzak, herritarren ordezkartzan, azalduko du aniztasunez eta pluraltasunez sortu den eta Eskola Kontseiluan –organo hori, aldi berean, eskola-elkartearen ordezkari da– zehaztu eta aberastu den testuari buruz duen iritzia.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 440.000 EUROKO AURREKONTU BAT ONARTU DU EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO GOI-MAILAKO KIROL-LEHIAKETETAN

- **laz, hogeit bat kirol-elkartek diru-laguntzaren bat jaso zuten deialdi honi esker**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 440.000 euroko kontu-saila onartu du, gaurko bileran, euskal emakume kirolarien parte-hartzea sustatzeko nazioarteko goi-mailako lehiaketetan. Diru-laguntzak 2018. urtean egingo diren kategoria absolutuko nazioarteko eremua eta izaera duten kirol-lehiaketa ofizialetarako emango dira, bai eta Estatu-mailako eta kategoria absolutuko emakumeen ligetarako ere.

Diru-laguntza hauen hartzaileak dira emakumeen kategorian lehiatuko diren taldeak, ondoko ezaugarriak dituzten lehiaketetan parte-hartzen dutenean:

- Nazioarteko Federazio, Europako Federazio edo nazioarteko Liga Profesional bateko egutegi ofizialean sartuta egon behar dute.
- Estatu-mailako emakumeen ligak dira dagokion federazioaren edo liga profesionalaren egutegi ofizialean sartuta dauden goi-mailako horiek, kategoria absolutuan.
- Estatu- edo erkidego-mailako lehiaketak ez dira aintzat hartuko.

laz, emakumeen kiroleko modalitate ezberdinetan lehiatzen diren hogeit bat kirol-elkartek diru-laguntzaren bat jaso zuten deialdi honi esker. Ondokoak, hartzaile horien artean egon ziren zenbait elkarte dira: Araski Saskibaloia Taldea, Bera Bera Rugby Taldea, Goiherri soka-tira Kirol Elkarte, Gernika Saskibaloia, Zarauzko Surf Elkarte edo Duranguesa Txirindulari Elkarte.

Segurtasuna

GOBERNU BILERAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIARI BURUZKO LEGEAREN PROIEKTUA ONARTU DU

- Berretsitako testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko dute, bertan eztabaida dadin
- Polizia-eredua indartzea; polizia kidegoetan berdintasuna eta emakumeen presentzia bultzatzeko neurriak sustatzea; eta Ertzaintzako lan-karrera hobetzea dira Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legea aldatzeko Gobernu Bilerak gaur onartu duen proiektuaren hiru ardatz nagusiak
- Horrela bete egiten da legegintza-egutegian aurreikusitako epea, eta Eusko Legebiltzarrak aurreko legealdia agortu zelako amaitzerik izan ez zuen tramitazioari ekingo dio berriz
- Onartu den testuak Poliziaren Etikari buruzko Europako Kodearen erreferentziak gaurkotzen ditu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Jardunbide Egokien Batzordearen izena aldatzen du, deitura berrizat Euskal Autonomia Erkidegoko Kontrol eta Gardentasun Batzordea proposatuz

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legea bosgarren aldiz aldatzeko proiektuan Segurtasun Saila gaur egun bultzatzen ari den polizia-ereduaren zenbait alderdi indartzeko eta etorkizunean eredu bera sendotzeko erreforma-multzo bat jorratzen da. Eredu horren oinarria herritarrei zerbitzu eta kontu ematea da, baita polizia-zerbitzuak eskubide berberak dituzten gizonezkoz eta emakumezkoz osatutako gizarte ireki, plural eta elebidunarekin uztartzea ere.

Lehenengo helburuan, **polizia-eredua indartzeko** helburuan, sartzen diren neurrien artean honako hauek daude: Poliziaren Etikari buruzko Europako Kodea integratzea, polizia-jardunbide egokia bultzatzeko pizgarri positiboan sistema indartzea (dominak eta sariak ematea), gaur egungo diziplina-sistema aldatzea barne hartuta (zehapen-araubidea egokituko da, funtzionarioei berme handiagoak emateko), eta Kontrol eta Gardentasun Batzordea sortzea, hau da, polizia-erakundearekiko autonomia funtzionala izango duen erakunde iraunkor hibrido bat, pertsona espezializatuz osatua, polizia-adituak barne. Batzordearen funtzioa honako hau izango da: Ertzaintzaren edo udaltzaingoan baitako jokabideak eta praktikak aztertzea, organo eskudunek eskatuta, herritarrek horien inguruko kezak badituzte edo herritarrek poliziarekiko duten konfiantzan eragina badute. Gainera, esku-hartze edo operatibo polizial baten testuinguruan norbait hiltzen bada edo larriki lesionatzen bada, gorabehera horiek ofizioz ikertuko ditu.

Legearen proiektuak, halaber, euskal poliziarako kideak aukeratzeko eta kidegoetara sartzeko prozesuekin lotutako alderdi batzuk hobetzen ditu eta orain arte erregelamendu batean jasota zeuden betekizunak lege formal baten mailako arau baten bidez arautzen ditu.

Horrez gain, onartutako testuan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia hautaketa-organo iraunkor gisa jasota dago, eta era berean, toki-erakundeek eskatuz gero, udaltzaingoetan sartzeko hautaketa-prozedurak egiteko aukera ematen zaio, baita batzuk Ertzaintzarekin batera egitekoa ere.

Hobekuntzen bigarren ardatza, funtsean, emakumeak Ertzaintzan sartzeko eta lan-mailaz igotzeko **diskriminazio edo ekintza positiboko neurriak** abiaraztean datza, betiere Europako legedi eta jurisprudentziaren parametroen eta eskakizunen barruan, gaur egungo presentzia handitzeko helburuarekin.

Hala, adibidez, polizia-kidegoetako emakumeentzako lan-sustapeneko planak arautzen dira, kidegoetara sartzeko eta lan-karrerarako aukera-berdintasuna bermaturik izan dezaten, dagokiena baino ordezkaritza urriagoa izatea zuzentzeko eta poliziaren eraginkortasuna handitzeko.

Nabarmentzekoak dira, berriak direla-eta, txanda libreko hautaketa-prozeduretan ezarriko diren emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak. Horien ondorioz, zenbait egoeratan emakumezko hautagaia gizonezkoaren gainetik hobetsiko da, Europako Erkidegoko jurisprudentziak lege-aurreikuspenei, proportzionaltasunari eta arrazoizkotasunari dagokienez exijitzen dituen parametroen kontra jo gabe.

Azkenik, erreformen hirugarren ardatzaren barruan, **Ertzaintzako lan-karrera horizontalaren arauketa** sartzen da. Horrek esan nahi du kategoria bakoitzean aurreikusitako lan-garapen mailetara finkatutako urteetan eta eskatutako lan-gaitasunak egiaztatuta igarotzeko ezagutza-mekanismo bat ezarriko dela.

Barne-sustapenaren arloan, karrera administratiboaren alde egingo da, kategoriaz igotzeko zerbitzu-urteen kopurua txikituz. Beste alde batetik, barne-sustapen prozeduretan parte hartzeko hiru deialdiko muga ezabatu egin da eta seme-alaben edo senideen zaintzagatik, genero-indarkeriagatik edo zerbitzu bereziengatik eszedentzian dauden pertsonak barne-sustapen prozesuetara aurkeztea onartuko da. Horrez gain, ezagutza bereziak eskatzen dituzten Ertzaintzako espezialitateen araubidea arautu da eta gutxieneko eta gehieneko iraupena izango dute.

Superintendente-kategoria kenduko denez, Ertzaintzako erantzukizun handieneko postuak eskuratzeko eta betetzeko prozesua bizkortuko da, lanpostuak betetzeko prozedura arrunten bidez.

Egoera administratiboei dagokienez, gaur aurkeztutako proiektuan zerbitzu aktiboa arautzen da, adinaren arabera modelatuta; hau da, zerbitzu aktiboarekin jarraituko da, norbere egoerarako egokiak diren zereginak eginez. Bestalde, gutxiegitasun psikofisikoarekin lotutako bigarren jarduerako egoera administratiboa ere arautzen da.

Gizarte-babes eta -errekonozimenduko neurrien artean, lehenengo aldiz, dominak eta ohorezko sariak emateko erregimena jasotzen da legean, zerbitzu-ekintzan hildakoak edo erretiroa hartu dutenak ohoratzeko dagokien kategoria baino maila bat gorago igotzeko aukera barne hartuta.

Proiektuan, diziiplina-araubidearen gaineko aldaketak ere jorratzen dira. Hala, behin eta berriz egindako sexu-jazarpenaren eta lan-jazarpenaren arloan falta oso astun berriak eta polizia-bideokameren erabilera-araubideari buruzko arau-hausteak sartzen dira.

Gaur onartutako testuan, zehapenen zerrenda modulatu da eta espedientepean dauden pertsonen bermeak indartu dira, deklarazioak ez egiteko, beren buruaren kontra ez egiteko, beren burua erruduntzat ez jotzeko eta errugabetasun-presuntzioa izateko eskubideei dagokionez, bai eta prozeduraren izapideen egoeraren berri izateko eskubideari dagokionez ere.

Udaltzaingoei dagokienez, indarrean dauden jardunbide batzuei erantzun juridikoa emateko askotariko neurriak aurreikusten dira proiektuan, esaterako: udaltzaingoak udalerritik kanpo jarduteko aukera, tokiko agintariak babesteko funtzioak gauza ditzaten. Halaber, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak berak antolatutako oinarrizko ikastaroak gainditu dituztenekin lan-poltsak osatu ahal izatea aurreikusten du, toki-korporazioen eskariei erantzuteko eta bitarteko funtzionarioek prestakuntza jaso ahal izateko.

Era berean, udaltzaingoen egitura profesionala aurreikusten da testuan; udaltzaingoa ez duten udalerrietarako, berriz, aguazilaren figura arautzen da, eta mugikortasun-agentearena, herrigunean zirkulazioa arautzeko.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO HA CONCEDIDO CERCA DE 5,3 MILLONES DE EUROS A PROYECTOS DE EMERGENCIA Y ACCIÓN HUMANITARIA

- **Los 17 proyectos aprobados atenderán a las poblaciones afectadas por crisis humanitarias en Palestina, Siria, Líbano, Pakistán, Nigeria, República Centroafricana, Camerún, México, Nicaragua, Honduras, Costa Rica, El Salvador, Paraguay, Colombia y Ecuador**

El Gobierno Vasco, a través de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo (AVCD), ha aprobado la concesión de ayudas a ONGD de Euskadi para que desarrollen proyectos de acción humanitaria en varias zonas del mundo. En concreto, la AVCD ha asignado 5,3 millones de euros para estas ayudas que fueron convocadas el pasado mes de abril en sus dos modalidades:

- Línea de financiación permanente y, por lo tanto abierta durante todo el año o hasta el agotamiento de fondos, dotada con 2,4 millones de euros. Se incluyen en esta línea proyectos de emergencia para la primera atención a personas afectadas por desastres. También abarca proyectos de acción humanitaria orientados a la preparación y prevención de desastres, mitigación y rehabilitación post-desastres y la construcción de la paz y la protección de los derechos humanos y el Derecho Internacional Humanitario.
- Línea de estrategias-marco de acción humanitaria, de concurrencia competitiva y dotada con 2,9 millones de euros. A través de las estrategias-marco, organizaciones especializadas en el ámbito humanitario atienden, sobre todo, crisis olvidadas. Se trata de acciones de más larga duración y presupuesto que acompañan a poblaciones afectadas por crisis con menor cobertura mediática y, por lo tanto, con menor apoyo por parte de los donantes humanitarios.

En lo que se refiere a la primera modalidad (**proyectos de emergencia y acción humanitaria de la línea de financiación permanente**), las ayudas del Gobierno Vasco irán destinadas a 13 proyectos presentados por las siguientes ONGD vascas:

- Proyecto de la Asociación Asamblea de Cooperación por la Paz para la protección de los derechos y la dignidad de la población palestina bajo ocupación conforme al Derecho Internacional Humanitario en Cisjordania (Territorios Palestinos Ocupados).
- Proyecto de la Fundación Oxfam Intermon para incrementar la resiliencia de la población indígena del municipio de Prinzapolka de la Región Autónoma de la Costa Caribe Norte (Nicaragua).

- Proyecto de la Fundación UNICEF para proteger y proporcionar un entorno familiar para niñas y niños no acompañados o separados de sus familias en el noreste de Nigeria.
- Proyecto de la Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioa para la organización igualitaria de los pueblos para afrontar y reducir los riesgos ante desastres naturales (Pakistán).
- Proyecto de la Asociación Comité Español de la UNRWA para reducir la inseguridad alimentaria de las personas refugiadas en la Franja de Gaza que viven en situación de pobreza absoluta (Territorios Palestinos Ocupados).
- Proyecto de la Fundación Ayuda en Acción para la recuperación de la población afectada por el terremoto del 19 de septiembre en 15 comunidades de la región Mixteca Poblana (México).
- Proyecto de la Fundación UNICEF para combatir la desnutrición en zonas olvidadas de República Centroafricana.
- Proyecto de la Fundación Oxfam Intermon para fortalecer las capacidades de resiliencia y liderazgo de las mujeres de los Bañados de Asunción en situación de emergencias (Paraguay).
- Proyecto de la Fundación Mundubat para el apoyo psicosocial a mujeres y menores gazatíes de la Franja de Gaza (Territorios Palestinos Ocupados).
- Proyecto de la Asociación Comité Español de la UNRWA para asegurar la supervivencia de la población refugiada de Palestina en Siria mediante ayuda en efectivo.
- Proyecto de la Asociación Comité Español de la UNRWA para contribuir a preservar la resiliencia de la población palestina refugiada de Siria en Líbano, gracias a asistencia en efectivo para necesidades básicas.
- Proyecto de la Fundación Alboan para la atención humanitaria integral a personas en situación de migración forzada en Colombia y Ecuador.
- Proyecto de la Fundación Alboan para implementar una estrategia de formación técnica e inserción sociolaboral para jóvenes refugiados/as entre 15 y 25 años en el campo de refugiados/as Gado Badzeré (Camerún).

Además, con relación a la segunda modalidad de ayuda, el Gobierno Vasco apoyará la puesta en marcha de cuatro **Estrategias-marco de Acción Humanitaria**:

- Estrategia-marco de la UNRWA (Agencia de Naciones Unidas para los refugiados en Palestina). El objetivo del proyecto es garantizar el

derecho a la salud, a la participación social y al acceso a los recursos económicos de las mujeres en la franja de Gaza (Territorios Palestinos Ocupados).

- Estrategia-marco de la Fundación Asamblea de Cooperación por la Paz, tiene como objetivo prevenir y mitigar el impacto de riesgos humanitarios y las crisis asociadas con violaciones del Derecho Internacional Humanitario y del Derecho Internacional de los Derechos Humanos, en varias localidades palestinas con especial énfasis en la lucha contra la violencia de género y la protección de la infancia (Territorios Palestinos Ocupados).
- Estrategia-marco de la Fundación Alboan, dirigida a satisfacer las necesidades básicas, aumentar la seguridad física y emocional y garantizar los derechos fundamentales de las personas en riesgo de desplazamiento y desplazadas con necesidades de protección internacional del Triángulo Norte de Centroamérica (Costa Rica, El Salvador, Honduras, México), con especial atención a las personas que han experimentado situaciones de violencia de género.
- Estrategia-marco de la Asociación de Amigos y Amigas de la RASD para asegurar el acceso al agua potable de la población saharahui retornada en Mheiriz (Territorios Liberados), mediante la mejora de la capacidad de almacenamiento de la estación de bombeo, la dotación de camiones cisterna para el reparto del agua y de depósitos para el almacenamiento del agua en condiciones adecuadas.

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

300.000 EUROS EN AYUDAS A LOS MUNICIPIOS PARA ELABORAR PLANES DE PROTECCIÓN Y RECUPERACIÓN DEL PAISAJE

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno a la Orden del consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, Iñaki Arriola, por la que se convoca la concesión de subvenciones a los Ayuntamientos y Concejos para la elaboración de Planes de Acción del Paisaje, con un presupuesto total de 300.000 euros.

Los Planes de Acción del Paisaje se configuran como instrumentos de intervención para la recuperación y/o puesta en valor de áreas naturales, urbanas o industriales de interés en un ámbito territorial concreto. Como mínimo, habrán de ofrecer un diagnóstico y análisis del paisaje y de las dinámicas paisajísticas, definiendo acciones y un programa de actuación.

El Gobierno Vasco se adhirió al Convenio Europeo del Paisaje aprobado por el Consejo de Europa el 20 de octubre de 2000, asumiendo los contenidos en él establecidos, integrando el paisaje en las políticas de ordenación del territorio y poniendo en marcha acciones de sensibilización y formación en la materia.

Se según la orden aprobada, en el presente ejercicio se subvencionará el 90% de los honorarios, excluidos impuestos, de redacción de los Planes de Acción de Paisaje, con un máximo de 30.000 euros por plan, hasta el agotamiento del crédito presupuestario existente.

El plazo de presentación de solicitudes será hasta el día 10 de septiembre de 2018, incluido, y las solicitudes se presentarán por medios electrónicos en euskadi.eus: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2018/subvenciones-planes-accion-del-paisaje-2018/y22-izapide/es.

Hacienda y Economía

ANE ETXENASIA ARAMBURUZABALA, NUEVA DIRECTORA DE ADMINISTRACIÓN TRIBUTARIA DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ECONOMÍA DEL GOBIERNO VASCO

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el nombramiento de Ane Etxenausia Aramburuzabala, como Directora de Administración Tributaria, a propuesta del Consejero de Hacienda y Economía, Pedro Azpiazu y en sustitución de Maitane Romero, que cesó en su cargo por voluntad propia el pasado 17 de abril.

Ane Etxenausia desarrollará las funciones de secretaria del Órgano de Coordinación Tributaria, ofrecerá apoyo técnico y administrativo a la Comisión Mixta del Concierto Económico, y se encargará de la elaboración de estudios, análisis, informes sobre armonización, coordinación y colaboración fiscal. Es Licenciada en Administración y Dirección de Empresas por la Universidad de Deusto y desde el inicio de su carrera se ha dedicado a la fiscalidad. Cuenta con más de 7 años de experiencia profesional tanto en el departamento fiscal de una compañía multinacional como en un despacho de abogados de reconocido prestigio.

Educación

DOCUMENTO “ACUERDO POR LA EDUCACIÓN. BASES PARA EL ACUERDO”

La Consejera de Educación Cristina Uriarte ha presentado en Consejo de Gobierno el documento “Acuerdo por la Educación. Bases para el Acuerdo”, que desde inicio de curso ha impulsado el Departamento de Educación.

El Gobierno Vasco ha reiterado durante la presente legislatura la importancia de un Acuerdo por la Educación. Ha destacado la necesidad de trabajar un acuerdo entre toda la comunidad educativa, con el objetivo de definir un suelo común; una reflexión compartida que permita sentar las bases del sistema educativo vasco, principios estables que perduren en el tiempo, y que se convierta en referente para poder lograr objetivos más ambiciosos, como una futura Ley Vasca de Educación.

Desde el pasado mes de septiembre, la elaboración del documento “Bases para el Acuerdo” ha contado con diferentes fases de participación:

- El pasado 25 de Septiembre, la Consejera de Educación Cristina Uriarte reunía a más de una treintena de agentes educativos y sociales vinculados a la enseñanza: Representantes de asociaciones de familias, profesorado, direcciones, patronales educativas y sindicatos, a quienes informó del inicio del proceso para la elaboración del Documento “Bases para el Acuerdo”. En dicha reunión, se informó de la creación de grupos de trabajo (Convivencia, Modernización, Evaluaciones, Lenguas y Autonomía de centros), así como del cronograma de la iniciativa, que concluiría con la remisión del documento definitivo al Parlamento Vasco antes de la finalización del actual periodo de sesiones.
- El 25 de febrero, y tras meses de trabajo por parte de los equipos compuestos por expertos en diferentes temáticas vinculadas a la educación, el Departamento de Educación reúne nuevamente a representantes de la totalidad de agentes vinculados a la educación, para trasladarles el primer borrador que recoge las bases para el acuerdo. En ese momento, se abre un plazo para que todos los agentes educativos y sociales, al igual que la ciudadanía en general, realicen las aportaciones que consideren para enriquecer y mejorar el citado documento.
- El 7 de marzo, y tras analizar y valorar las aportaciones recibidas, la Consejera de Educación traslada al Consejo Escolar el documento “Bases para el Acuerdo”, para su reflexión.
- A mediados del mes de mayo, el Consejo Escolar de Euskadi remite al Departamento de Educación el dictamen elaborado en relación al documento “Bases para el Acuerdo”, y aprobado por sus integrantes.

- Finalmente, y tras estudiar el contenido del dictamen, el Departamento de Educación decide incorporar la práctica totalidad de las propuestas remitidas por el Consejo Escolar de Euskadi. El documento definitivo es presentado en Consejo de Gobierno.

El Departamento de Educación remitirá a lo largo de esta semana el documento definitivo de “Bases para el Acuerdo”, dando cumplimiento al compromiso adquirido ante el parlamento y ante los agentes educativos y sociales en el momento de la presentación de la iniciativa.

Será la sede parlamentaria, en representación de la ciudadanía, quien en último término mostrará su opinión sobre un texto de origen plural y diverso en cuanto a su creación, y matizado y enriquecido en el Consejo Escolar, órgano, a su vez, representativo de la comunidad escolar.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA PARTIDA DE 440.000 EUROS PARA APOYAR LA PARTICIPACIÓN FEMENINA EN PRUEBAS DEPORTIVAS DE ALTO NIVEL

- **El año pasado una veintena de entidades deportivas recibieron algún tipo de subvención a través de esta convocatoria**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy una partida de 440.000 euros para impulsar la participación de deportistas vascas en competiciones internacionales de alto nivel. Las subvenciones están destinadas a la participación en pruebas deportivas oficiales de ámbito y carácter internacional en categoría absoluta que se realicen en 2018, así como en ligas estatales de mujeres.

Estas subvenciones están destinadas a agrupaciones que compitan en categoría femenina y que lo hagan en competiciones que cumplan las siguientes características:

- Deberán estar incluidas en el calendario oficial de una Federación Internacional, Federación Europea o Liga Profesional de carácter internacional.
- Las ligas estatales femeninas serán aquellas de máximo nivel incluidas en el calendario oficial de la federación o liga profesional correspondiente, de categoría absoluta.
- Las competiciones que tengan consideración de ámbito estatal o autonómico no serán objeto de valoración.

El año pasado una veintena de entidades deportivas que compiten en diferentes modalidades del deporte femenino recibieron algún tipo de ayuda a través de esta línea de subvenciones. Araski Saskibaloia Taldea, Bera Bera Rugby Taldea, Goierri Kirol Elkarteak de soka-tira, Gernika Saskibaloia, Zarauzko Surf Elkarteak o Sociedad Ciclista Duranguesa fueron algunas de las entidades apoyadas a través de estas ayudas.

Seguridad

EL GOBIERNO APRUEBA EL PROYECTO DE LA LEY DE POLICÍA DEL PAÍS VASCO

- El texto ratificado será remitido para su debate en el Parlamento Vasco
- Reforzar el modelo policial; promover medidas igualitarias y la presencia de la mujeres en los cuerpos policiales y favorecer la carrera profesional en la Ertzaintza son los tres ejes básicos del proyecto de modificación de la Ley de Policía del País Vasco aprobada hoy en el Consejo de Gobierno
- De este modo se da cumplimiento en plazo a lo previsto en el calendario legislativo y el Parlamento Vasco retomará la tramitación que no concluyó por agotarse la pasada legislatura
- El texto ahora aprobado actualiza las referencias al Código Europeo de Ética de la Policía y cambia la denominación de la Comisión de Buenas Prácticas de la Policía del País Vasco, que pasa a llamarse Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

El proyecto de quinta modificación de la Ley de Policía del País Vasco aborda un conjunto de reformas que buscan reforzar aspectos del modelo policial que el Departamento de Seguridad está impulsando y que el proyecto de ley consolida a futuro. Un modelo basado en la prestación de servicio a la ciudadanía a la que se debe rendir cuentas y la imbricación de los servicios policiales con una sociedad abierta, plural, bilingüe y constituida por hombres y mujeres iguales en derechos.

Entre las medidas encuadradas en el primer objetivo de **reforzar el modelo policial** figuran la integración del Código Europeo de Ética de la Policía, el reforzamiento del sistema de estímulos positivos del buen hacer policial (condecoraciones y distinciones), que incluye la modificación del actual sistema disciplinario (adecuando el régimen sancionador para ofrecer mayores garantías al funcionariado) y, también la creación de la Comisión de Control y Transparencia, un organismo híbrido de carácter permanente, con autonomía funcional respecto de la institución policial y compuesta por personas especializadas, incluyendo a expertos policiales. La misión de esta comisión será estudiar, a solicitud de los órganos competentes, cualquier conducta o práctica en el seno de la Ertzaintza o policía local sobre la que existan quejas e incidencia en la confianza ciudadana. Además, estudiará de oficio los incidentes en los que en el contexto de una intervención u operativo policial se hubiera producido un fallecimiento o lesiones graves a una persona.

El proyecto de ley también mejora aspectos relacionados con los procesos de selección e ingreso en los cuerpos de policía vasca, regulando los requisitos que hasta la fecha se recogían en un reglamento, en una norma con rango de ley formal.

Además, en el texto aprobado la Academia Vasca de Policía y Emergencias se configura como órgano permanente de selección y se permite que, si así lo solicitan las entidades locales, pueda llevar a cabo procedimientos de selección para el ingreso en los Cuerpos de Policía Local, incluso de forma conjunta con los de la Ertzaintza.

El segundo eje de mejoras se centra, fundamentalmente, en la puesta en práctica de **medidas de discriminación o acción positiva** en favor de las mujeres para el ingreso y promoción en la Ertzaintza, siempre dentro de los parámetros y requisitos de la legislación y jurisprudencia europeas, para incrementar la presencia actual.

Así, por ejemplo, se regulan los planes de promoción de las mujeres en los cuerpos policiales para garantizar la igualdad de oportunidades en el ingreso y carrera profesional, corregir su infrarrepresentación e incrementar la eficacia policial.

Destacan, por novedosas, las medidas de acción positiva a favor de las mujeres en procedimientos selectivos por turno libre que implican la preferencia de la candidata mujer frente al hombre, en determinadas circunstancias, de un modo compatible con los parámetros exigibles en la jurisprudencia europea de previsión legal, proporcionalidad y razonabilidad.

Por último, dentro del tercer eje de reformas se encuadra la **regulación de la carrera profesional horizontal en la Ertzaintza**, lo que implica la instauración de un mecanismo de reconocimiento que permite acceder a los diversos grados de desarrollo profesional previstos en cada categoría a lo largo de los años que se establezcan y mediante la acreditación de las competencias profesionales requeridas.

En materia de promoción interna, se favorece la carrera administrativa minorando el número de años de servicio para ascender de categoría. Por otro lado, se suprime el límite tres convocatorias para participar en los procedimientos de promoción interna, se admite la presentación en los procesos de promoción interna de quienes estén en excedencia por cuidado de hijos o familiares, excedencia por violencia de género o servicios especiales. También, se regula el régimen de las especialidades en la Ertzaintza para tareas con conocimientos específicos que tendrán una mínima y máxima permanencia.

Desaparece la categoría de superintendente, de modo que se agiliza el acceso y cobertura de los puestos de mando de mayor responsabilidad en la Ertzaintza por medio de los procedimientos ordinarios de provisión de puestos.

En lo que atañe a las situaciones administrativas, el proyecto presentado hoy regula el servicio activo modulado por la edad, consistente en la continuación

del servicio activo realizando tareas apropiadas a su condición y también regula la situación administrativa de segunda actividad por insuficiencia psicofísica.

Entre las medidas de protección y reconocimiento social, se contempla por primera vez en la ley el régimen de concesión de condecoraciones y recompensas honoríficas, previendo la posibilidad del ascenso honorífico a la categoría inmediatamente superior a quienes hubieran fallecido en acto de servicio o personas jubiladas.

El proyecto aborda también modificaciones del régimen disciplinario incorporando nuevas faltas muy graves en materia de acoso sexual y acoso laboral reiterado, así como infracciones al régimen de utilización de videocámaras policiales.

En el texto aprobado hoy se modula el elenco de sanciones y se refuerzan las garantías de las personas expedientadas en cuanto a su derecho a no declarar, a no hacerlo contra sí misma, a no confesarse culpable y a la presunción de inocencias, así como a conocer el estado de tramitación del procedimiento.

En cuanto a los cuerpos de policía local, el proyecto prevé medidas diversas que dan respuesta jurídica a prácticas existentes, como la posibilidad de que la policía local actúe fuera del término municipal para ejercer funciones de protección de autoridades locales. También prevé que la Academia Vasca de Policía y Emergencias pueda formar bolsas de trabajo con personas que hayan superado cursos básicos organizados por ella, para abastecer la demanda de las corporaciones locales y permitir la formación de funcionarias o funcionarios interinos.

De igual manera, el texto contempla la estructura profesional de los cuerpos de policía local al tiempo que regula la figura de alguacil, para municipios que no cuenten con cuerpo de policía local y de agente de movilidad para regular la circulación en el casco urbano.